

**2016ko ABUZTUAREN 27an UDALBATZARRAK EGINDAKO APARTEKO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **12 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2016ko abuztuaren 27an, eguerdiko hamabietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen aparteko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Nekane Iribar Iriondo and. Imanol Lasa Zeberio jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Karmele Alberdi Linazasoro and. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Gloria Vazquez Herranz and. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez dira etorri	Jesus Arana Gomez jn. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iratxe Zorrozueta Eguiazabal and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Aitor Korta Etxabe jn. Ane Arruti Lopetegi and. Pablo Garcia Astrain jn.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Bilkurari hasiera emanda, **batzarburu** jaunak adierazi du bilkura apartekoa dela eta horren arrazoia dela, hain zuzen ere, AINHOA MURUA atletari ongietorria egitea 2016ko Joko Olinpikoetan parte hartu ondoren.

Segidan, eguneko aztergai bakarra aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

Bakarra.- AINHOA MURUA ANDREARI KIROL MEREZIMENDUAREN DOMINA EMATEA

Lehenik eta behin, AINHOA MURUA ZUBIZARRETA andreari Zarauzko Udalak KIROL MEREZIMENDUEN DOMINA emateko arrazoiak irakurri ditu **alkate** jaunak:

Kirol Merezimenduen Domina Ainhoa Murua Zubizarretari

AINHOA MURUA ZUBIZARRETA 1978. urtean jaio zen Zarautzen. Kirolaria izan da haurtzarotik; goi mailako igerilaria ume zein gaztetan, eta goi mailako triatloilaria azken hamasei urteotan. Kirolarekiko pasioa, eguneroko lana, konstantzia, pazientzia eta lehiakortasunaren alderdi onenaren adierazle izan den zarauztarra.

AINHOA MURUA ZUBIZARRETA egin dituen kirol balentriekin mundu mailan Top-10 kirolari handienen artean egotera eraman du, urte askotan zehar. AINHOAREN kirol merezimenduak izugarriak dira, ondoren nabarmenenak zerrendatuko ditugularik.

Baina kirol merezimenduen maila gorenaren parekoa izan da kirol baloreetan AINHOA MURUA ZUBIZARRETA zarauztarrak behin eta berriz adierazi izan diona munduari; ezin eredugarriagoa eguneroko jardunean edota olinpiar izpirituaren keinu gorenean; adibidez, bere azken kirol-jokabide hunkigarrian.

Arestian aipatu lez, AINHOA MURUA ZUBIZARRETAren kirol palmaresa bakana da, konstantzia erabatekotik lortutako emaitza ikusgarriak, garaipenak asko. Laburbilduz ondorengo hauek lirateke kirolari zarauztar honen emaitza esanguratsuenak:

*** 4 aldiz triatloilari olinpikoa:**

- 2004. urtean, Atenasen, 24. postua.
- 2008. urtean, Pekinen, 28. postua.
- 2012an, Londresen, 7. postua eta diploma olinpikoa, beraz.
- Eta 2016. urte honetan, Rio de Janeiron, izpiritu olinpikoaren balentria erakutsi digu.

*** 141 lasterketa internazionaletan lehiatu du Ainhoak.**

- Nazioarteko 97 txapelketetan TOP 20
- Nazioarteko 56 txapelketetan TOP 10
- Nazioarteko 5 garaipen: Urrezko domina Munduko Kopan -World Cup Guatape (2013)
- 2 domina Europako txapelketetan: Brontzea 3. postua (Ginebra, 2015), Zilarra 2. postua Eilat (Israel, 2012), eta Brontzea Munduko errelebo txapelketan (2006)
- Guztira, 6 DNF (amaitu gabeko nazioarte mailako lasterketak), inork inoiz lortu ez duen kopururik txikiena.
- 5 aldiz Espainiako txapelduna.
- 4 aldiz Zarauzko Triatloian irabazlea.

Eta jarraian kirolari txapeldunaren urtez urteko lorpenak, besteak beste:

- **2009. urteko palmaresa:**
 - 4. World Cup Ishigaki-n

- 17. World Series London-en
 - 16. World Series Gold Coast-en
 - Txapelduna Espainiako Autonomien arteko Txapelketan
 - Txapelduna Donostiako Nazioarteko Triatloian
 - Txapelduna Zarauzko Triatloian.
- **2010. urteko palmaresa:**
 - 3. World Cup Tongyeong-en
 - 4. Athlone Europako Txapelketan
 - 9. World Series Madrilen
 - 9. World Series Kitzbuehel-en
 - 9. World Series Hamburg-en
 - 11. World Series London-en
 - 8. World Cup Mooloolaba-n
 - Txapelduna Espainiako Triatloi Txapelketan
 - Txapelduna Donostiako Triatloian
 - Txapelduna Santanderreko Triatloian.
- **2011. urteko palmaresa:**
 - 24. World Series Hamburg-en
 - 4. Europako Txapelketan
 - 14. Final World Series Pekin-en
 - 14. World Series Madrilen
 - 16. World Series Kitzbuehel-en
 - 17. World Series Lausanne-n
 - 5. Munduko Duatloi Txapelketan
 - 11. Huatulcon (México)
 - Txapelduna Espainiako Triatloi Txapelketan
 - Txapelduna GARMIN Barcelona Triatloian
 - Txapelduna Bermeo Triatloian
 - Txapelduna Oñatiko Duatloian
 - Txapelduna Fuenteálamo Duatloian.
- **2012. urteko palmaresa:**
 - 7. Londoneko Joku Olinpikoetan
 - 2. Europako Txapelketan
 - 11. Final W. Series Auckland-en
 - 6. World Series Madrilen
 - 6. World Series Sydney-n
 - 7. World Series Stockholm-en
 - 9. World Series Hamburg-en
 - Txapelduna Europako Kopan
 - Txapelduna Espainiako Txapelketan
 - Txapelduna Lekeitioko Triatloian
 - Txapelduna Mungiako Duatloian.
- **2013. urteko palmaresa:**
 - 10. Final World Series London-en
 - 18. World Series Hamburg-en
 - Txapelduna World Cup Guatape-n
 - 4. World Cup Alicante-n
 - 2. Copa Europa Banyoles-en
 - Txapelduna Espainiako Txapelketan
 - 3. Garmin Barcelona Nazioarteko Triatloian
- **2014. urteko palmaresa:**
 - 5. World Series Cape Town-en
 - 14. World Cup Tongyoung-en

- 15. World Cup Cozumel-en
- 19. World Series London-en
- 24. World Series Hamburg-en.

- **2015. urteko palmaresa:**
 - 3. Europako Txapelketan
 - Txapelduna Gernika Duatloian
 - 12. World Series Cape Town-en
 - 13. World Series Hamburg-en
 - 14. World Series Yokohama-n
 - 21. World Cup Chengdu-n.
- **2016. urteko palmaresa:**
 - 11. World Series Cape Town-en
 - 25. World Series Abu Dhabi-n
 - 28. World Series Hamburg-en
 - 13. World series Gold Coast-en
 - 9. New Plymouth World Cup-en
 - 22. Mooloolaba World Cup-en
 - Txapelduna Getariako Triatloian
 - Txapelduna Zarauzko Triatloian.

Horretarako izapidetu den espedientea ikusi ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

2016. urtean ohore eta aipamen hau ematea:

KIROL MEREZIMENDUAREN DOMINA
AINHOA MURUA ZUBIZARRETA andreamari

izandako ibilbide garrantzitsua eta kirol arrakasta aitortuz, Zarauzko Udaleko Ohore eta Aipamenen Araudian aurreikusitako ondorioekin.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, eguerdiko hamabiak eta hogeian, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.